


6 mantangorri

CO

AZOKA



LIBURUAK

Izenburuak: 'Kalabaza Munstroa' eta 'Hamabost metroko Kupidoaren erasoia'.**Egilea:** Jim Benton. **Itzulpena:** Usoa Wyssenbach.**Orrialde kopurua:** 112na orrialde. **Bilduma:** Franny K. Stein, zientzialari eroa. **Adina:** 8 urtetik gorakoentzat. **Argitaletxea:** Desclée.

ditu, eta esperimentu bat egitea bururatuko zaio beste haurren gogokoa izateko. Dena ongi doala dirudi, harik eta zakarrontzitik munstro bat ateratzen den arte...

Eta, *Hamabost metroko Kupidoaren erasoia-n*, berriz, Frannyk beste abentura bat izango du. San Balendin eguna ospatzeko, Shelly andereñoak ariketa bat bidali die etxeen egiteko. Frannyren logelan esperimentu bat aldrebes aterada, ordea, eta hamabost metroko Kupido erraldoi bat aske utziko du, gezi eta guzti. Franny eta *Igor*, bere txakur laguntzailea, hondamendia geldiarazten saiatuko dira.

Nolako liburuak dira?

Oso entretenigarriak eta dibilitigarriak dira. Istorioek berehalan harrapatzenean dute irakurlea, eta ez diote aspertzeko tarterik uzten.

Atal asko eta oso laburrak dituzte liburuek. Liburua irakurtzeko arina eta erraza egiten du ezaugarri horrek, ezta?

Bai, hala da. Kapitulu laburrak iza-teak irakurketa asko errazten du. Eta liburuan ageri diren marrazkiek are entrenigarriagoa bihurtzen dute irakurketa. Zoragarriak dira marrazkiak!

Jolasteko aukera ere ematen dute liburuek.

Bai, irakurleari istorioan murgiltze-ko eta parte hartzeko aukera ematen zaio. Horrek protagonistaren izaera berezia hobeto ulertzen ere laguntzen duela uste dut nik. Hala, panpina berriak sortzeko ereduak daude lehen liburuan; bigarrenean, berriz, San Balendin eguneko txartelak sortzeko ereduak daude.

Haurren artean liburu arrakastatsuak dira. Zergatik dela uste duzu?

Nik esango nuke Frannyk egiten dituela arrakastatsu liburu hauek. Izan ere, oso neska ezohikoa da: zientzia oso gustuko du, oso argia da eta logelan animalia bitxiak eta arriskutsuak ditu. Zientziazale ero bat da, beti esperimentu arraroak egiten dabilena, baina, aldi berean, bihotz oneko neska da. Bere izaera eta izaten dituen abentura zoroak funtsezko osagaiak dira liburu hauek arrakasta izateko.

Usoa Wyssenbach

ITZULTZAILEA

«Frannyren izaera eta izaten dituen abentura zoroak funtsezko osagaiak dira liburuek arrakasta izateko»


Zientzialari eroa dela dio Franny gaztetxoak. Zientzialari eroa da, zientzia bizi gustatzen zaiolako eta esperimentuak egiten igaro-roko lukeelako eguna. Izaera oso berezia du Frannyk, liburuko protagonistak, eta dituen zaletasunak ere ezohikoak dira erabat: saguzarrak, sugeak eta armiarmak maite ditu, eta oso panpina eta jostailu bereziekin ibiltzen da.

Franny ez da bere adineko beste neskatalik bezalakoa.

Ez horixe! Franny oso bestelakoa da. Franny zientziazale amorratua da, eta gauza bel-durgarriak eta izugarrriak atsegín ditu, esaterako: saguzarrak, sugeak eta armiarma erraldoiak. Baina gehien gustatzen zaiona zientzia denez, logela esperimentu bereziak egiteko tresnez eta tramankuluz beterik dauka. Bere logelan beste inon baino gusturago sentitzen denez, gutxitan izaten du handik ateratzeko gozoa edo premia.

Izaera berezia du, eta zaletasunak ere ez ditu oso ohikoak.

Frannyk oso izaera eta zaletasun bereziak ditu, eta, ikaskideekin alderatuz gero, oso bestelakoa da. Hasteko, bere logela ez da batere arrunta: toki iluna, goibela eta bel-durgarria da, ziega baten antze-koa, armiarma erraldoiz eta saguzarrez betea.



Horrez gain, oso tramankulu bitxiak ditu: probeta handi lurruntsuak, borborka ari diren ontzi arraroak eta berak asmatutako tresna elektriko txinpartatsu mordoa. Hori guztia, bere esperimentu kuttunak egiteko, jakina.

Zein abentura kontatzen dira lehen bi liburuetan?

Kalabaza Munstroa eta *Hamabost metroko Kupidoaren erasoia* dira orain arte argitaratu diren izenburuak. Hona *Kalabaza Munstroa-n* aurkituko dugun abentura: Franny K. Stein eta bere familia etxe berri batera etorri dira bizitzen, eta, beraz, Franny lehen aldiz joan da auzoko eskolara. Irakaslea, Shelly andereñoa, hasieratik gustatu zaio. Ikaskideak ere gustatuko zaizkiola pentsatzen du, baina ez dirudi bere lagun izateko gogo handirik dutenik. Hain dira bestelakoak... Franny zientziazale amorratua denez eta gauza bel-durgarriak atsegín dituenez, esko-la berrian lagunak egiteko arazoak